

Software Librea

-

SARRERA: SOFTWARE LIBREA, INSTALAZIOA ETA APLIKAZIOAK

JOSEBA MAKAZAGA - AITOR SOROA



AURKIBIDEA

LABURPENA	3
1. MODULUAREN HELBURUAK	3
2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK	3
2.1 Lizentziak eta negozio ereduak	3
2.2 GNU/Linux banaketak	4
2.3 Instalazioa	4
2.4 Fitxategi-sistema berria	4
2.5 Oinarrizko aplikazioak.....	4
2.6 Dokumentazioa eta laguntza.....	5
ERREFERENTZIAK	6

LABURPENA

UEU, UPV/EHU eta Asmoz fundazioak antolatutako UPV/EHUren titulu propioa da Software Libreko unibertsitate espezialistarena. Izenburutzat honakoa du: *Software libre: sistema, sarea, segurtasuna eta web aplikazioak*. Ikastaroaren edukiak hainbat gai edo modulutan banatzen ditu eta esku artean duzun hau lehenengo gaiaren laburpena da. Tituluari erreparatuz gero Software Libre kontzeptua nabarmentzen da, horregatik gai honen helburuen artean, zer den azaltzeaz gain, software librean oinarritutako sistema instalatzea eta bertan aurkitu ahal izango ditugun oinarritzko aplikazioak ezagutzea eta konfiguratzea sartu ditugu.

1. MODULUAREN HELBURUAK

Software librea da ikastaroaren gaia. Mundu horretan murgiltzeko lehendabiziko urratsa gure makina software librearen bidez kudeatzen hastea da. Horretarako, sistema eragilea eta bere gaineko aplikazio multzoa instalatu behar ditugu. Modulu honetan software librea zer den eta zer ez den azalduko dugu, software libre zergatik sortu den eta zergatik jarraitzen duen ulertzeko historiara joko dugu, izateko arrazoiak adierazteko. Horrez gain, software librean oinarritutako instalazioa nola egiten den ikasiko dugu, eta instalatutako aplikazio nagusien gainbegirada ere egingo dugu. Aplikazio horien bidez erabiltzaile arrunt baten eguneroko lana arazorik gabe bete daitekeela ikusiko dugu. Instalazioaren ondorengo konfigurazioari arreta eskainiko zaio: postaren konfigurazioa, nabigatzailearen erabilera, irudiak ikusi eta kudeatzeko aplikazioak, bideoa ikustekoak, eta orokorrean ftxategi mota bakoitzarekin erabil daitezkeen aplikazioen aukera. Laburbilduz, gai honen amaieran software librez kudeatutako konputagailua erabiltzeko gai izango gara.

2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Gai honetan hainbat kontzeptu landuko dira: software librearen ezaugarri nagusia erabiltzaileari ematen zaion lizentzia da, lizentzien ezberdintasunak ikusi eta softwarea libre egiten duten lizentziak azalduko dira. Lizentzia librearen abantailak eta horrek irekitzen dituen aukerak aztertuko dira eta, nolabait, aukera horiek software libreari nola laguntzen dieten ikusiko da. Era berean horrek ulertaraziko digu software librearen ugaritasuna ulertzen, eta hainbeste aplikazio bilduma edo banaketa zergatik dauden ikusiko da. Azken fnean konputagailuan banaketa jakin bat instalatu beharko da eta aukeratu egin beharko da merkatuko banaketen artean. Banaketa aukeratzekoan instalazioa egiteak duen erraztasuna eta mantentzeko egin beharreko lanak kontuan hartu behar dira, izan ere lan horiek ez baitira inoiz ahaztu behar. Horrez gain instalazioa egiteko diskoen partaketak, sistema kopurua eta antzeko erabakiak hartu behar dira, eta instalazioaren ondoren eskura izango ditugun aplikazioak ezagutzea ere komeni da. Azkenik, erabiltzaileak eguneroko erabilera egoki egin dezan hainbat konfigurazio eta doiketa egitea komeni zaio, azken fnean norberaren beharretara egokitu behar baita makina.

2.1 Lizentziak eta negozio ereduak

Software librearekin estuki lotutako kontzeptua da lizentziarena, alegia softwarea erabiltzeko orduan softwarearen jabeak erabiltzaileari emandako baimena. Lizentzia motak aztertuko dira, batzuen eta besteen arteko diferentziak ezagutu beharrekoak baitira. Lizentziak zehazten du zer den eta zer ez den software libre, gainera, merkatu mailan egin daitezkeen negozio ereduak ere lizentzien menpe daude, beraz, lizentzien eta negozio ereduaren azterketa egitea beharrezkoa da. Aplikazioaren jabeak erabiltzaileari ematen dion askatasunean oinarritzen da software librearen ahalmena, baimen horri esker erabiltzaileak edozer egiteko eskubidea du eta hor dago software librearen indarra.

2.2 GNU/Linux banaketak

Software librean oinarritutako era guztietako aplikazioak daude: interneten nabigatzekoak, konputagailuaren atal desberdinak kudeatzekoak, webak zerbitzatzekoak, datu baseen kudeaketarakoak, ofmatikakoak eta abar. Konputagailua kudeatzeko sistema eragileak ere bai. Azken fnean konputagailu batekin lan egiteko aplikazio multzo bat behar da eta aplikazio horien bilduma ezberdinak egin daitezke: libreak eta ez libreak. Software librez egindako bilduma gehienak GNU/Linux [2] modura ezagutzen dira, nahiz eta ez diren bakarrak. Horrelako bilduma edo banaketa ezagunenak azalduko dira, esate baterako debian [3] eta ubuntu [1], eta bilduma jakin bat erabiliko da norberaren konputagailuan software librean oinarritutako instalazioa egiteko. Instalazio hori aurreragoko gaietan erabiliko da, beraz, ondo egin beharreko lana izango da.

2.3 Instalazioa

Instalazioa egin ahal izateko konputagailua prestatu beharra dago, eta hainbat erabaki hartu behar dira: aurretik zegoen informazioa galdu daitekeen edo mantendu behar den, sistema zaharra eta berriak biak batera eduki nahi diren ala berria bakarrik geratuko den, erabiltzaileak zenbat disko beharko duen, zein aplikazio instalatuko diren...

Erabakien arabera makinaren disko gogorra era batera edo bestera zatitu beharko da, zati edo partizioak nola egin eta instalazio prozesua nolakoa izango den ere azalduko da gai honetan, azken helburua instalazioa bera egitea baita.

Instalazioa egiterakoan hainbat konfigurazio egin behar dira, garrantzitsuenak internet erabili ahal izateko behar direnak dira, hau da, internetera atera ahal izateko behar diren IPa, sare mota edo maskara, aterabidea eta zerbitzaria. Horiez gain erabiltzaile bakoitzaren ekipoaren berezitasunaren arabera inprimagailuak eta horrelako tresnak ere konfiguratu beharko dira.

2.4 Fitxategi-sistema berria

Oinarrizko instalazioaren ondoren fitxategi sistema berriaren erabilera azalduko da, GNU/Linux sistema batean fitxategien kudeaketa beste sistemekiko ezberdina da[8], eta horren erabileran ohitura hartzea komenida: DVDak, USBmemoriak, eta orokorrean dispositiboak nola erabiltzen eta kudeatzen diren ikastea komeni da. Lan horretan laguntzeko dauden aplikazioak ere azalduko dira. Garrantzi handiko kontua da fitxategiak non eta nola jasotzen diren jakitea, bai erabiltzaileen fitxategiak bai eta sistemarenak berarenak ere. Bilaketak egiteko tresnak ezagutu behar dira eta kanpo memoriekin lan egitera ohitu beharra dago.

2.5 Oinarrizko aplikazioak

Horrez gain, sistema berrian aurkituko diren aplikazioak aztertu eta garrantzitsuenak konfiguratu dira. Horien artean:

- Bulego aplikazioak. Behar orokorrak asetzeko moduko aplikazio bilduma aurkituko dugu instalazioaren ondoren. Bulegoetako oinarrizko lanak egin ahal izateko testu prozesadorea, kalkulu orriak egiteko aplikazioa, aurkezpenak sortzekoa, marrazkiak egitekoa, kalkulagailua eta abar.
- Posta elektronikoa kudeatzeko aplikazioak. Erabiltzaile bakoitzak bere posta zerbitzaria dauka eta posta irakurri edota bidali ahal izateko aplikazioa egokitu beharra dago.
- Web nabigatzailea eta interneteko aplikazioak. Web nabigatzailean hainbat gehigarri instalatzea komeni da, esate baterako euskaraz jarduteko euskalbar. Horrez gain berehalako mezularitzarako aplikazioak, p2p aplikazioak, bideokonferentziatarakoak, fitxategien transferentziarako aplikazioak eta antzekoak ikusiko dira.

- Irudiaren, soinuaren eta bideoaren inguruko aplikazioak ere asko dira, horien artean garrantzitsuenak ikusiko dira.
- Software berria instalatzeko aplikazioak. Honek ere badu bere garrantzia, izan ere banaketa bakoitzean erabil daitezkeen aplikazioak instalatzeko tresna oso ahaltsuak garatu dira, tresna hauek softwarea bilatzen eta instalatzen laguntzen dute eta eguneraketak era automatikoan egitea ahalbidetzen dute.

Aplikazio hauen guztien portaera orokorra ere pertsonalizatu egin daiteke, konputagailuari osotasuna emanaz eta pantailako itxuraren portaera egokituz. Horretarako panelak eta gaiak egokitu beharko dira.

2.6 Dokumentazioa eta laguntza

Software librearen ezaugarrietako bat erabiltzaileen arteko elkarlana da, mundu mailako komunitateetan elkarlanean sortu eta mantendutako softwarea izanik, laguntza ere era horretan antolatzen da. Hainbat foro eta webgune daude erabiltzaileei ikasten laguntzeko edota arazoan konponbidea bilatzen laguntzeko. Batzuk aipatzearren:

- The Linux Documentation Center [4]
- Softwarea euskaratzeko taldea: librezale [7]
- Ubuntu gazteleraz [6]
- Wikipedia [5]
- Enpresa batekin ere mantenua kontrata daiteke.

ERREFERENTZIAK

- [1] <http://www.ubuntulinux.com>
- [2] <http://www.gnu.org>
- [3] http://www.debian.org/social_contract
- [4] <http://www.tldp.org>
- [5] <http://www.wikipedia.org>
- [6] <http://www.ubuntu-es.org/>
- [7] <http://librezale.org/>
- [8] Linux. Sistemaren eta sarearen administrazioa, I. Alegria, R. Cortiñas, UEU 2008